

EGIKARITZE-LABURPENA

Olalde etxearen ingurua berroneratzeko Hiri Berrikuntzarako Plan Berezia.

HAPOaren ordenantzetako 6.2.6 artikuluan xedatzen da A.5 Lurralde Areako E.A. 5-8 Esku-Hartze Areako Almike Kalea 2 zenbakian kokatutako Olalde etxearen birgaikuntza Plan Berezi baten bidez gauzatuko dela. (Eraikin balio kulturalduntzat hartzen da katalogoan). Plan Bereziak bertako ingurune urbanoaren egokitzapena eduki beharko du barne eta bere xedea zera izango da: Mehelineen eta urbanizazioaren arazoak konpontzea baita eraikinaren esku-hartzearen izaera zehaztea.

Hurrengoak lirateke Hiri Berrikuntzako Plan Bereziaren antolamendu xehatuko parametroak:

Sailkapena:	Hiri Lurzoru Finkatua.
Kalifikazio Orokorra:	R.2 _ Egoitzazko erabilera mistoa.
Eraikigarritasuna:	873,17 m ² egoitzazko erabilera, eraikineko sarrera barne. 106,22 m ² erabilera komertziala beheko plantan.
Tipologia:	B+4+AT
Zuzkidura publikoa:	Jabari publikoari lagapena, 37,41 m ² + aterpean 52,53 m ²

Olalde etxearen inguruko Hiri Berrikuntzarako Plan Bereziarekin lortu nahi diran helburuak izango litzateke, hiri-lurzorua deskongestionatzea, zuzkidura publikoak sortzea, ingurua saneatzea, hiria berroneratzea eta birgaitzea, barne-erreforma, irisgarritasun-arazoak edo estetika-arazoak konpontzea, etab.

